



ERROTARIK ERROTA, NATURA ETA KULTURA UZTARTUZ

Zeanuriko Erroten X. Ibilaldia antolatu dute maiatzaren 3rako

Gure geografiako paraje eta txoko ezberdinak ezagutzeko erarik egokiena oinez ibiltzea eta bazterrak arakatzea da. Eta aukera hori eskaintzen dute datorren maiatzaren 3rako Ipizki eta Joko Alai elkarteek *Zeanuriko Erroten X. Ibilaldiaren* antolaketaekin.

Oinezko martxa honekin antolatzaileek bilatzen dituzten helburuak honako hauek dira: alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurbiltzen diren bisitariei Zeanuri (Bizkaia) eta bere auzoak ezagutzera ematea; eta, bestetik, Zeanuriren historian errotek izan duten garrantzia ezagutaraztea. Ez dira gutxi, izan ere, herri honetan ezagutzen diren edota han-hemenka azaltzen diren errota edo erroten arrastoak: guztira hemezortzi —gehienak bertan behera utzita, baina beste batzuk zaharberrituta—, denak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-irtena egiteko aukera izango dute.

Aurtengo ibilbidea iazko berbera izango da, 18 kilometrokoa, baina haurrentzat edo ondo prestatuta ez daudenentzat laburragoa, 12 kilometrokoa, egiteko aukera ere eskaintzen da. Irteera herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Altziber eta Errotabarri erroten ondotik igaro ondoren, Undurragako urtegiaren ertzetik jarraituko dute parte-hartzaileek. Urtegia atzean utzi bezain laster, Barrengoerrota aurkituko dute Beretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre baserriaren ingurutik aurrera eginez, Undurraga auzunera jaitsiko



Olabarriko anteparan lanean



*2014ko edizioko parte-hartzaileak
Undurragako urtegiaren presara bidean*

dira **Ibargutxiko** errotarako bidea hartzeko; hemen, atea zabalik izango dira eta nahi dutenek kuku bat egin eta errota lanean ikusteko aukera izango dute. Ibargutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik berriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo diote —oraingoan beste aldetik—; urtegiaren presatik 100 metro aitzina, Alkiberren, indarrak berritzeko jan-edana banatuko du **Gastronomía Cantábrica**-k. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ondotik igaro ostean, azken kilometroa betetzen hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errota azalduko da, **Olabarrikoa** —Pujana familiak erabat zaharberritua—, eta bisitatzeko aukera izango da, ate batetik sartuz eta bestetik atereaz, Zeanuriko plazara iritsi eta ibilaldiari amaiera eman aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 18 kilometro eramango dituzte oinetan ibiltariak, baina ziur zitari erantzuteak mereziko diela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezagutzeaz gain, udaberrian naturak azaltzen duen koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera izango baitute.

IBILALDIARI BURUZKO XEHETASUNAK

- * Eguna: maiatzaren 3a, iganda.
- * Izena ematea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 4 €
- * Irteera: 09:00etan.
- * Ibilbidea: 18 kilometro. Haurrentzat ibilbide laburra: 12 kilometrokoa.
- * Jan-edana: Ibilbidearen erdialdean jan-edana banatuko du **Gastronomía Cantábrica**-k.
- * Ibilaldiaren hasieran **Ibargutxiko** errotan eta amaieran **Olabarrikoan** sartu-irtena egiteko aukera izango dute ibiltariek.
- * Antolatzaileak: Ipizki Taldea eta Joko Alai Elkarte.
- * Laguntzaileak: Gastronomía Cantábrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubilatuen Taberna eta Arratiako Gurutze Gorria.

INFORMAZIO GEHIAGO: www.ipizki.com/ www.gorbeialdea.com edo telefono hauetan: **653016117, 946739287**

ZEANURIKO ERROTAK

Ander Manterolak bere *Industrias tradicionales en Zeanuri(Bizkaia)*. *I. Molinos harineros* ikerketa lanean dienez, XIX. mendearen amaierarantz Zeanurin sei burdinola eta hemezortzi errota zeuden. Orduetik hona jarduera biak indarra galduz joan dira, horrela burdinolen krisiak lantegi horien desagerpena ekarri zuen XIX. mendearen bigarren zatian. Gainbehera horren ondorioz, jende asko nekazaritzara itzuli zen; nekazaritzara lur gehiago zuzentzeak eta, aldi berean, gora egin zuten laboreen uztak ehotzeko premiak erroten beharizana ekarri zuten. Ondorioz, burdinola batzuk errota bihurtu ziren, hori gertatu zen Lanbreaberekin, Ibargutxirekin, Altziberrekin eta Olabarriekin.

Bestalde, erroten agonia XX. mendearen erdialderantz larriagotu egin zen. Duela berrogeita bost urte Zeanurin hamaika errota lanean bazeuden, 1979an hiruk bakarrik ehotzen zuten, euretako bik etxerako; gaur egun, batek bakarrik egiten du lan eta berak era testimonialean, Olabarriko errota hain zuzen ere; beste bat, Ibargutxikoa, noizean behin jartzen dute martxan.

Zeanurin ezagutu diren errota guztiak hidraulikoak izan dira eta udalerriko lau erreka nagusien inguruan eraiki ziren:


***Arratia erreka:** Lanbreabe, Ibargutxi, Alkiber, Errotabarri, Altziber eta Olabarri.

***Beretikortako erreka:** Goikoerrota, Erdikoerrota, Barrengoerrota eta Undurraga.

***Uribeko Erreka:** Atxiti, Intxaurbe, Axpe eta Zulaibar.

***Asterriko Erreka:** Ibarre, Landaburu, Akeuri eta Uribiarte.

Hemezortzi errota horietatik lau burdinola izan ziren: Lanbreabe, Ibargutxi, Altziber eta Olabarri. Beste bi ola ere egon ziren: Olazar eta Undurragako Olabarri.



IBILBIDEKO ERROTAK BANAN-BANAN

- 1- **Altziber:** Otzerinmendiko kofradian dago. Lehenengo burdinola izan zen eta 1868ra arte egin zuen lan. Gero, errota izateko egokitu zuten eta lau harri izan zituen. Altzibergo dorretxearen jabetza izan zen.

1965ean presa apurtu egin zitzaion eta lan egiteari utzi egin zion. Azken errotaria Jesus Agirrezabala izan zen.

Altzibergo presa errotatik ehun eta berrogeita hamar metro ingurura dago, eta gaur egun apurtuta aurkitzen da. Toki hau *Ponporte* izenaz ezagutzen dute zeaniztarrek; izen horrek presa eta kaltzea lotzen zituen *konportari* edo *poponporteari* egiten dio erreferentzia.



Errotaria pikatzen

- 2- **Errotabari:** Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eraiki zuten.



Errotabarriko errotaren presa

Zeanuriko

errotarik berriena da. Lehenago, ibaiaren beste aldean zegoen. Hiru harri ditu eta errotaren mekanismoa baldintza egokietan mantentzen da, lanean jartzeko moduan nahi izanez gero. Gainera, aurten jabeek zaharberritu egin dute.

Errota honetan, presa eta antepara konporta baten bidez daude lotuta eta ez kaltze baten bitartez. Zeanuriko gainontzeko errotetan ez bezala, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateratzen da, urak errekarara bideratzeko.

1975eko apirilean utzi zion lan egiteari. Azken errotaria Andres Aldekoa *Ane* izan zen.

- 3- **Barrengoerrota:** Altzusteke kofradian dago. Kofradiako hamaika kideren jabetza da; hamaika horietatik zazpik parte bana dute eta lauk erdia. 1974an utzi zion lan egiteari. Errotariak kokatzen diren aldea hondatuta dago. Azken errotaria Rosalia Caballero izan zen.

- 4- **Ibargutxi:** Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. mendean burdinola izan zen. Gaur egun harri bi baditu ere, hiru harrirekin egin zuen lan. Hirugarren harri hori garagarra eta pentsuak ehotzeko erabiltzen zen, eta Ibargutxiko etxea eta beste harri biak dauden eraikinaren behealdean kokatzen zen, bi errotari horiek mugiarazten zituen ura aprobetxatzeko. Hirugarren harriak 1950erantz utzi zion lan egiteari.



Ibargutxiko errotaren errotapea

1945ean errotaren azpiko aldean turbina eta generadore batez baliatuz argindarra ekoizten hasi ziren Ibargutxin, eta 1978ra arte gutxi gorabehera Altzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzen zuten elektrizitatea.

Ibargutxiko errotaren instalazioak guztiz zaharberrituta daude eta, oraindik, noizean behin etxerako garia edo artoa ehotzen dute jabeek; horrez gain, generadorearen bitartez etxerako argindarra ere ekoizten dute.

Azken errotaria Gabriel Larrazabal izan zen. Gaur egun Bitoriano, Satur eta M^a Jesus bere seme-alabak dira jabeak, eta errota zaharberritzeaz eta ingurua txukun-txukun mantentzeaz arduratzen direnak.



Ibargutxiko errotaren kanpoaldea

- 5- **Lanbreabe:** Ipiñaburuko kofradian dago. Jatorriz burdinola izan zen. Gaur egun bi harri baditu ere, lehenago hiru harriekin egin zuen lan. 1920an, Joanes Egiluzek, orduko jabeak, generadore elektrikoa egokitu zion eta orduan utzi zion hirugarren harriak ehotzeari. Lanbreabek etxerako zein errentadoreak ziren beste hiru etxeetarako ekoiztu zuen argia, *Mendizabal* zentral elektrikoa martxan jarri zen arte, 1952ra arte hain zuzen ere. Beraz, generadorea jarri zenetik harri birekin egin zuen lan: batean, garia ehotzen zuten eta bestean, artoa. 1975erantz gutxi gorabehera errota guztiz geratu zuten. Azken errotaria Julian Egiluz izan zen.
- 6- **Intxaurbe:** Uribe kofradian dago. XIX. mendean utzi zion lan egiteari. Errota zegoen inguruan aurkitzen den etxea gaur egun *Intxaurbeko errota* izenaz ezagutzen bada ere, inoiz ez da izan errota. Errota etxearen gaineko aldean omen zegoen.
- 7- **Axpe:** Uribe kofradian dago. Gaur egun presa eta kaltzearen arrastoak bakarrik ikus daitezke. Duela mende bat baino gehiago utzi zion lan egiteari. Errota hau Axpeko jauregiaren jabetza izan zen.
- 8- **Zulaibar:** Uribe kofradian dago. 1976an utzi zion lan egiteari. 2006an etxebizitzarako egokitu zuten. Azken errotaria Jose Barrenetxea *Jose Errota* izan zen.
- 9- **Olabarri:** Iburguen kofradian dago. Jatorriz burdinola izan zen eta Zeanuriko patronoa zen Arriola familiaren jabetza. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu zuen, 1898ko azaroaren 30ean, San



Bisita gidatuak antolatzen dira Olabarriko errotan

Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotaren kargu egin zen arte. XX. mendearen erdirantz Benigno Pujanak —Isidroren semeak— errota erosi egin zien Arriolarrei. Benignok errotari lanetan jardun zuen 1995eko urriaren 11n hil zen arte. Aitaren heriotzaren ondoren, Fermin semeak errotaren zaharbarritze lanei heldu zien, eta hor darrai gaur egun ere jo eta ke apurka-apurka txukunduz.

Olabarriko errotak hiru harri ditu eta, gehienbat arrazoi sentimentalegatik bada ere, betiko bezeroen eskariari erantzuteko lanean darraien Zeanuriko errota bakarra da. Benigno Pujana —herriko azken errotari profesionala— hiltzerakoan, bere alaba Ana Mari izan da lekukoa hartu duena, azken ehun eta hamaika urteetan familiaren ogibidea izan den ofizioa bizirik mantentzeko.

Errotaren ondoan burdinolaren arrastoak azaltzen dira eta gaur egun, hormak zaharberritzen ari dira. Burdinolan erabilitako balantza ere errotan gordetzen da.

Errotagintzari buruzko gorabeherak ezagutu nahi dituztenek horretarako aukera dute Olabarrira hurreratuz, Pujana familiak bisita gidatuak antolatzen baititu.

Olabarriko errotako telefonoak: 946739327 eta 946739499